

## LESBIANAK IKUSEZIN

Emakume lesbianek hainbat arazo gainditu behar izaten dituzte, baina nagusietako bat honako hau da: lesbianak ez direla existitzen. Ezkutuan ibiltzea eta existentziarik eza bizi izan dituzte historia osoan, mundu homoerotiko femeninoari dagokionez. Historian sakondu ahal izan dugun guztia aztertuta ere, lesbianismoaren inguruan isiltasun iluna egon dela ikusi dugu: emakumeen arteko maitasun-harremanei buruzko datu eta kasu historikoak aurkitzea zaila eta konplikatua da.

Historian, denbora asko behar izan zen emakumeek beste emakume batzueganako erakarpena senti zezaketela onartzeko. Normala honako hau pentsatzea zen: emakume batek ezin zuela sexu-desirarik eragin beste emakume batengan. Eta, beraz, bai zuzenbidean, bai medikuntzan, bai iritzi publikoan, oro har, emakumeen arteko sexu-harremanen aurrean ezikusiarrena egin izan da, gizonen arteko sexu-harremanen kasuan ez bezala. Adibide bat aipatuko dugu: Erdi Aroan eta Aro Modernoan, auzitegi laikoetan eta eliza-auzitegietan epaitutako ehunka homosexualitate-kasuen artean ez dago ia bat bera ere emakumeen arteko sexu-harremanei buruzkoa.

Zenbait emakume historialarik dioenari jarraiki, harrigarria da emakumeen sexualitatearen alderdi esanguratsu hori kontzientzia kolektibotik ezabatu izana. Haien ustez ez da ezjakintasun-kontua, hau da, ez zekitela emakume lesbianak izan bazirela, baizik eta, bereziki, horrelakorik sinetsi nahi ez izatearekin loturiko kontua da.

Zer gertatu da mendebaldeko gizarteak historikoki lesbianismoaren inguruan zeharkatu ezin den hesi bat eraikitzeke?

Galdera horri erantzuteko, emakumeari, sexualitateari, oro har, eta, bereziki, emakumeen sexualitateari buruzko hainbat ikusmolde aipatu behar dira; izan ere, ikusmolde horiek direla-eta, mendetan ezin izan da lesbianismoari buruz askatasunez eta libreki hitz egin edo eztabaidatu.

Zein dira ideia horiek?

- 1. Emakumea gizona baino gutxiago da: gaur egun, agian, pentsamendu hori ez da hain bortizki adieraziko baina egitura sozial eta mental jakin batzuk eragin ditu eta egitura horietan emakumea —gizonarekin alderatuta— bigarren maila batean uzten zen edo emakumeen kontuak ez ziren gizonenak bezain garrantzitsuak. Hori horrela izanik, emakumeen artean edo emakumeen munduan gertatzen dena ez da hain garrantzitsua eta ez da gauza seriotzat hartzen. Horren ondorioz, lesbianismoak ez du izan gizonen homosexualitateak izan duen errekonozimendua. Mendebaldeko historian gutxitan aipatzen da lesbianismoa, baina kasu horietako batean, ikaskuntza-prozesutzat hartzen zuten, gizonezkoen sexualitatearen emulaziotzat, gazte alargunen arinkeriatzat; lesbianismoa praktikatzea ez zen gizonen homosexualitatean jardutea bezain larria edo ustela eta, beraz, ez zegoen hain zigortua.

- 2. Sexualitateak eredu heterosexuari jarraitu behar dio eta mutil bat neska batekin egotea —eta alderantziz—, horrek izan behar zuen normala. Neska neskekin edo mutila mutilarekin egotea anormaltzat jotzen zen.

- 3. Sexualitatearen ardatza gizona da (androzentrismoa) eta gizonak baino ez du plazerra izateko eskubidea. Emakumearen sexu-ahalmen autonomoa etengabe zalantzan jarri izan da, eta ahalmen hori ukatzera ere iritsi da. Emakumeen sexualitatea gizonezkoaren sexualitatearekin loturik dago; beraz, lesbianismoa izatea ia ezinezkoa da. Emakume batek ezin du beste emakume bat gustuko izan!

- 4. Zakila da garrantzitsuena. Bada esaldi ezagun bat: "baina zer egin dezakete bi lesbianek elkarrekin daudenean?". Esaldi hori aurreiritziz betetako ikuspegiaren adierazgarri izateaz gain, jende askoren pentsamoldearen laburpen ere bada: bi emakumeen arteko harremanean garrantzitsuena (zakila) falta baldin bada, orduan lesbianismoa ez da erabateko sexualitatea; gehienez ere, atariko jolasak izan daitezke, benetan garrantzitsuena den hori agertu bitarte. Duela zenbait urte baino indar txikiagoa duten arren, ideia horiek gaur egun uztartzen dira oraindik ere, lesbianismoa ikusezin eginaraztera iritsi arte. Gizartean oraindik indarrean dago sexualitate heterosexual eta androzentrikoaren ideia; beraz, emakume lesbianek erreferenteak, ereduak bilatu nahi badituzte, homosexualitatearen irudi maskulinoegia aurkitzen dute.

Lesbianismoa ez da hain ezaguna, ez da hainbeste aztertu, eta gizonezkoen homosexualitateari baino garrantzi txikiagoa ematen zaio oraindik ere. Kasu askotan, horren ondorioz, pentsa liteke errazagoa dela lesbiana izatea gay izatea baino, zeren, ez dakigun hori ez denez existitzen, ez baita hain agerikoa; dena dela, horrexegatik, hain zuzen, lesbiana askok ezkutuan gordetzen dute beren sexu-orientazioa, isilpean bizi dute, edo gayek baino modu pribatuagoan, bederen.

Hurrengo orrialdeetan, lesbianen errealitatearen hiru alderdi aztertuko ditugu, lesbianismoak bizi duen ikusezintasunaren eraginpean dauden hiru alderdi, hain zuzen ere: autoestimua, amatasuna eta zahartzaroa:

"Ama-bi" ikusezina da

Maria ez zen haurra bere gurasoak dibortziatu zirenean, eta bere amak harreman homosexual bati ekin zion. Ez zen erraza izan, baina egun batean, institutuan, ikasketa-talde batean Mariak honako hau esan zuen: "Nerabea naiz, futboleak jokatzea gustuko dut eta nire ama lesbiana da". Eskola amaitutakoan, beste neska bat hurbildu zitzaion eta zera galdetu zion: "Benetan esan al duzu zure ama lesbiana dela? Nire amak lesbianak dira eta inoiz ez nion inori esan".

Lesbianek haurrak izan ditzakete eta haurrak izan nahi dituzte; izan ere, beste emakume bat maitatzeak ez du esan nahi antzuak direnik edo ezin dutenik haur bat hazi eta hezi. Emakume homosexual askok seme-alabak izaten dituzte, dela adoptatuta, dela aurretik izandako bikotekideekin izandakoak, dela harrera-erregimenean. Horri dagokionez:

- Adopzioa eta familia-harrera arautzen duen Legean (1987) ez dira norbanakoak diskriminatzen sexu-orientazioarekin loturiko arrazoiengatik. Edozein helduk adopta eta har ditzake haurrak, norbanako gisa eta egokitasun-baldintzak betetzen baditu. Hor ez dago arazorik, baina bikote homosexual batek bikote moduan adoptatu nahi baldin badu, kasu horretan bai. Aukera hori ez da zilegi.

- Laguntza bidezko Ugalketa Teknikai buruzko Legean (1988) emakumeek (bakarrik dauden emakumeek) hazi-jartzea edo inseminazioa egin dezakete.

Lege horien babespean, emakume lesbianak haurrak adoptatzen ari dira aspalditik eta haur "zailak" ere harreran ematen ari zaizkie emakume-bikoteei.

Bestalde, lesbiana askok hazi-jartzea egiten dute klinika espezializatuetan, inolako konplikaziorik gabe. Adituen arabera, bakarrik dauden emakume ezkongabeen artean, emaile anonimo baten semenarekin hazi-jartzea egiten duten % 75etik % 80ra bitarte lesbianak dira eta bikotekidearekin bizi dira.

Gay eta lesbianen artean eta, bereziki, lesbianen kasuan, % 23-50ek seme-alabak izaten dituzte, hazi eta hezi egiten dituzte eta bikotekide eta seme-alabekin familiak osatzen dituzte, maitasunean eta errespetuan oinarritutako familiak. Etxe barruan beste edozein familia bezalakoak dira; etxetik kanpo, arazoak eta gizartean nahiz lege-arloan jasaten duten diskriminazioa izaten dira bereizgarri: ikusten ez diren familiak dira, ikusezinak.

Legearen aurrean, haurra ama biologikoarena edo adopziozko amarena da, harena bakarrik, horrek dakartzan ondorio guztiekin, hau da, bi emakumez osatutako bikoteen seme-alabek eskubide gutxiago dituzte. Oinordetzako eskubide eta eskubide ekonomiko mota asko daude: jaraunspenak, mediku-aseguruak, istripu-aseguruak... eta seme-alaba horiek ezin dituzte baliatu bikote heterosexualen seme-alaben baldintza berdinetan. Adibidez, bi amak banantzen badira, haurrari ez zaio onartzen ama ez-biologikoak mantenu-pentsioa ordaintzeko eskubiderik; edo ama ez-biologikoa hiltzen bada, jaraunspen-eskubideak ez zaizkio aintzat hartzen; edo heriotza istripuz izan bada, ez du kalte-ordainik jasoko.

Bi emakumez osatutako bikoteen eguneroko bizitza biziki konplikatua da Legearen aurrean bikote mota hori ez delako existitzen; adibidez, haurraren eguneroko jardunei dagokionez: ikastetxea, asistentzia medikoa eta abar. Ama biologikoak edo adopziozko amak soilik har ditzake erabakiak. Haurrak ez du errefortzu positiborik izaten; aitzitik, bere beste ama Legearen aurrean eta gizartearen sektore batentzat "ez dela inor" etengabe gogorarazten dioten egoerak gainditu behar ditu: izan ere, bere familia ez da gainerakoak bezalakoak. Azken batean, afektiboki eta emozionalki, ez du arauen babesik. Haurra bi amarekin hazi da eta biak maite ditu, bien artean hezi eta hazi dutelako, baina Legez ez bada onartzen ama ez-biologikoaren eginkizuna, haurrak ama horrekin dituen lotura afektibo eta emozionalak eten egin daitezke ama biologikoa hiltzen bada. Horrela, bada, legeek ez dute haurraren ongizate psikologikoa babesten. Gaur egun legeek ez diote laguntzarik ematen bi ama dituen haur bati, baina egoera hori aldatu egingo da etorkizunean.

Baikor izateko datuak emango ditugu:

- Gero eta lesbiana bikote gehiagok salatzen du lege-arloko defentsa-gabezia hori eta haurra bien haur moduan erregistratu nahi dutela aldarrikatzen dute.

- Gure gizartearen zati garrantzitsu batek inolako arazorik gabe onartzen du amatasuna/aitatasuna sexu bereko bikoteetan.

- Politikari dagokionez, urrats garrantzitsuak egin dira: adibidez, Nafarroan, Izatezko Bikoteen Lege

Autonomikoa dute eta sexu bereko pertsonaz osatutako bikoteei onartzen die adoptatzeko aukera. Alderdi politiko gehienek homosexualen eta lesbianen arteko ezkontza onartzeko proiektuak egin dituzte, heterosexualen kasuko betebeharrak eta onura berdinekin.

#### AUTOESTIMUA INDARTZEA

Gure sexualitatea eraikitze edo osatzeko garaian, pertsona guztiek inguruko kultura-definizioen arabera egiten dugu osatze hori. Emakume lesbianek ere bai. Autoestimua zera da, pertsona batek bere buruarekiko sentitzen duen estimazioa eta begirunea, eta bizitzan izandako praktika eta esperientzia sorta batek baldintzatzen du. Hona hemen sorta hori:

- Norberari buruzko sinesmenak.
- Pentsamenduak eta jakintzak.
- Zalantzak eta intuizioak.
- Gertatzen zaigunaren interpretazioa eta guk eraginda gertatzen diren gauzak.
- Emozioak, afektuak eta nahiak.

Hainbat mekanismo sozialen eraginez, emakume lesbianak azpibaloetsita geratzen dira, hasieran, behintzat, emakume moduan, eta gaur egun horrelako mekanismoak oraindik indarrean daudenez, eragozpenak sortzen dira:

errudun-usteak eta legitimo izateko nahia. Sekretu baztertzailerik batekin, bakardadea eragiten duen sekretu batekin bizitzea. Besteek baino zailtasun handiagoak izatea sexu-esperientzia gauza positibotzat hartzeko.

Arazo horien guztien ondorioz, eta lesbianismoaren inguruko aurreiritzi eta estigmak direla-eta, emakume lesbianek lan handia egin behar izaten dute autoestimua orekatua izateko.

Autoestimua txikia izateak honako ondorio hauek ditu:

- Besteengana irekitzeko gaitasuna mugatzea eta, beraz, nahiak, oro har, eta sexu-desioak, bereziki, gutxiago adieraztea.
- Konponbideak bilatzeko gaitasuna murriztea eta, beraz, erabaki gutxiago hartzea.
- Sexu-esperientziari aurre egiteko gaitasuna eta horren pertzepzioa desitxuratzea.

Era berean, autoestimua txikia izanez gero, erabat onartu gabeko orientazio homosexuala izateak eragiten duen beldurrik gabe, defentsa-jarrerarik hartu gabe eta antsietaterik gabe eguneroko gatazkei aurre egiteko trebetasuna murriztu egiten da.

Emakumeak "besterentzako" izakiak dira; hori horrela izanik, emakumeek autoestimua "besterengan" uzten dute, euren gaitasunetan baino gehiago. Hortaz, ez da harritzekoa lesbiana askok beren buruaren estimua txikia izatea.

Nola indartzen da autoestimua?

- Nahiak zehaztuta eta nahi horiek askatasunez ahalbidetuta. Ongizatea sustatuta, eta garapen pertsonala indartuta eta horri eutsita.
- Gizartearen, familiaren eta erakundearen egiturak eraldatuta, sexu-desioen aniztasuna kontuan hartzeko eta desio horiek baldintza berdinetan garatzeko aukera ahalbidetzearen.

#### ADINEKO LESBIANAK

Non daude adineko lesbianak? Ikusezintasunak etapa batean eragiten du bereziki: zahartzaroan. Antza, emakume batek, adin jakin bat betetzen duenean, beste emakume bat desiratzeari uzten dio. Eta hori ez da horrela, ezta hurrik eman ere! Zahartzean ez zaio lesbiana izateari uzten; aitzitik, zahartzaroan areagotu egiten dira diskriminazioak eta eragozpenak.

Gure gizartean, gaztetasuna balio gorena da eta adinekoak bigarren planoan geratzen dira. Zahartzaroari atzea emanda bizi gara; ez dugu ikusi nahi denok zahartuko garela ezinbestean eta bizitzaren etapa hori konnotazio positiboetaz gabetzen dugu.

Gaur egungo emakume homosexual zaharrei dagokienez, bi gai izan beharko genituzke kontuan:

- Garai frankistan egin behar izan zioten aurre euren homosexualitateari, homosexualitatea jazarri eta zigortu egiten zuen koiuntura sozial eta politikoa bizi izan zuten, emakumearen sexu-eginkizuna bigarren mailakoa eta ugalketarekin loturikoa izanik.
- Gaur egun, ingurune homosexualak beste ardatz batzuk ditu eta euren lesbianismoa bizitzen hasi ziren garaian ez bezalako irizpideen arabera jokatzeko da.

Garai frankistan, emakume horiek gaur ez bezalako baldintzetan bizi behar izan zuten homosexualitatea: errepresioaren beldur handiagorekin, euren burua onartzeko eta sexu-

desio ikusezina eta ukatua errealitate bihurtzeko zailtasun handiagoarekin.

Zenbait emakumek, onartu zutenean, paradoxa bat bizi behar izan zuten: alde batetik, diskriminazioa pairatu behar izan zuten, zalantzarik gabe, baina bestetik, ikusezintasunak eskaintzen zien onura izan zuten, hau da, elkarrekin bizi zitezkeen eta elkarren artean harremanetan egon zitezkeen, gay garaikideek jasan behar izaten zuten presio soziala pairatu behar izan gabe. Lagun minak dira, beti elkarrekin bizi izan diren lagun minak.

Emakume askok trantsizio politikoaren garaia eta sexualitatearekiko jarrera-aldaketa baliatu zituzten euren egoera publiko egiteko edo "armairutik irteteko"; gaur egun, "armairua" berriz ere ixteko mehatxupearan bizi dira, haiek barruan daudela. Gure gizarteak nekez onartzen du adinekoen artean sexualitaterik badagoenik eta sexualitate hori, gainera, homosexuala edo lesbiana baldin bada, ez da aipatu ere egiten. Izan ere, zahartzaroari buruzko ezein azterlanetan ez da aipatzen zaharren artean homosexualitatea egon daitekeenik. Gaur egun oso zaila da adinekoa izatea. Bakardadea eta pobrezia ekonomikoa arazo larriak dira, baina arazo horietaz gain, sexu bereko bikoteen kasuan erregulazio juridikorik eza eta adinekoei laguntzeko zerbitzuetan errealitate hori ez onartzearen arazoa ere gainditu behar izaten dituzte.

Egun, homosexualitatea bizitzeko moduak aldatu egin dira gizartean, hau da, modu publikoago eta irekiagoan bizi da, onarpen kolektibo handiagoa duela, baina bizi osoan isilpean eta euren burua ukatzen bizi izan direnentzat agian oso zaila izan daiteke aldaketa horiek barneratzea.

Kolektibo homosexuala, itxuraz, gaztea da, zahartzaroaren kontrakoa. Talde hori sozializatzeko espazioak eta baliabideak bereziki gazteentzat diseinatu dira; beraz, ez da harrizkoa adinekoek baliabide horietan sarbide murriztua izatea eta adinekoentzat baliabide horiek baliatzea zaila izatea. Esan gabe doa espazio kolektiboak behar direla, hain zuzen ere, gay eta lesbiana zaharren interes eta itxaropenetara egokitutako espazioak.

Konplikazio sorta hori ikusita, pentsa liteke adineko lesbianek beren aukera galdu dutela, zeren adin horrekin jada ez baitu merezi sexualitate atsegingarria bilatzea. EZTA PENTSATU ERE. Emakumeen bizi-kalitatea nabarmen hobetu da eta emakume asko egoera fisiko eta mental ezin hobean iristen da zahartzarora. Oraindik asko dago bizitzeko, baita bizitza sexual aktiboa ere. Sexualitatea ez da soilik gazte eta helduen gozamenarako; bizi osoan gurekin daramagu sexualitatea eta, horregatik, oso garrantzitsua da gure ongizatea ahalbidetu eta indartuko duen oro bilatu, baliatu eta gauzatzea.

Iturria: <http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/Visibilidad-y-lesbianismo>  
(<http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/Visibilidad-y-lesbianismo>)

(Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak itzulia)